

Familia agurgarria:

Aurten 2 urte beteta edo beteko duen seme-alabak izanda, herrian dagoen hezkuntza eskaintzari buruzko informazioa luzatzen dizuegu. **2022ko urtarrilaren 17tik 28ra bitartean** izena emateko epea eta, ondoren, matrikulazioa irekiko da, 2022-2023 ikasturtean Haur, Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publiko nahiz itunduetan ikasi nahi dutenentzat.

Zuen seme-alabak Legazpin 2tik 18 urtera, dena euskaraz, D ereduari ikasteko aukera izango du, honako aukera hauek izanik:

- 1. Domingo Agirre Eskola Publikoa:** Haur eta Lehen Hezkuntza (2tik 12 urtera)  
**Olazabal Bigarren Hezkuntzako Institutua:** Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza - DBH (12tik 16 urtera) eta Batxilergoa – DBHO, Zientziak motatakoa (16tik 18 urtera).
- 2. Haztegi Ikastola:** Haur eta Lehen Hezkuntza (2tik 12 urtera),  
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza - DBH (12tik 16 urtera) eta  
Batxilergoa-DBHO Zientziak eta, Giza eta Gizarte-Zientziak motatakoak, (16tik 18 urtera).

Aipatutako ikastetxeetan matrikulatzeko aukera zuen esku geratzen da dena den, hona hemen antolatu dituzten aurkezpen-saioen berri:

- **Domingo Agirre Eskola Publikoa:** urtarrilak 22, larunbata, 11.00etan, Arantzazu Haur Hezkuntzako geletan (Laubide auzoa, 11).
- **Haztegi Ikastola:** urtarrilak 18, asteartea (euskaraz) eta urtarrilak 19 asteazkena (gaztelerez), 18.00etan Latxartegi Haur Hezkuntzako geletan (Latxartegi kalea,4-5).

Honekin batera udalak luzaturiko familia helbidearen Bizikidetza agiria igortzen dizuegu, izenematea egiteko eskatuko baitizuite.

Hona hemen ikastetxeetako helbideak eta idazkaritzetako telefono eta ordutegiak:

<b>Domingo Agirre Eskola Publikoa</b> Idazkaritza Laubide auzoa, 20-Bis Tel. 943 89 91 74 Ordutegia: 9.00 – 13.15 / 14.15 – 18.00	<b>Haztegi Ikastola</b> Idazkaritza Santikutz Kalea, 5 Tel. 943 73 10 97 Ordutegia: 8.00 – 13.00 / 14.30 – 18.00
---	--

Adeitasunez.

Legazpin, 2022ko urtarrilaren 11n  
Hezkuntza zerbitzuko zinegotzi-ordezkarria-Maite Lombide Lizarralde

